

KOLDO ELEIZALDE

MADARIKATUA

Baziren behin Irati eta Olatz izeneko bi ahizpa, Olatzek 17 urte zituen eta Iratik 16. Biek Koldo Eleizalde lehiaketa irabazi zuten, bakoitzari hotel baterako sarrera bat eman zioten. Hotel horrek ez zuen ospe ona jendea desagertu egiten zelako.

- Ez dakit horra joan beharko ginatekeen, Olatz.-esan zuen Iratik.
- Lasai, ondo zainduko gaituzte.-eratzun zuen Olatzek.

Lotara joan zirenean, Olatzek zerbait arraroa entzun zuen baina ez zion kasurik egin. Ahizpa nagusia lotara joan zen berriro baina modu misteriotsu batean, baso ilun batean esnatu zen, egurrezko txabola ziztrin baten barruan. Kantzatuta zegoen, gauean musika arraro batek esnatu zuelako. Guztiz jaiki zenean bere ahizpa oraindikan hor zegoen. Musika arraroa zen, “ni, nini, ni, ni, nini...” musika kutxa batena bezalakoa, emozio edo sentimendu gabekoa. Ez zion kasurik egin eta bere telefonoa hartu zuen. Shock egoeran gelditu zen, 2113. urtean zeudela ikusi zuenean. Poliziari deitu zion, baino ez zegoen WIFlrik eta ez zen normalean gertatzen dena gertatu, telefonoa “ni, nini, ni, ni, nini...” hasi zen hurrengo hitzak esanez:

- Kontuz zuhaitzeko umeekin! Zure ondoan labana bat duzu.- esan zuen ahotsak.

Labana hartu eta bere arrebari esnatu zion. Gertatu zena azaldu zion... eta Irati beldurrez akabatu zen. Lasaitu zenean, zeuden txabola zaharretik atera ziren eta momentu horretan txabola apurtu egin zen

Abestiak jarraitu egiten zuen eta sasi artean zerbait mugitu zen.

- Norbait dago hor? Lagundu! Lagundu!-esan zuen Iratik.
- Shhhhhhhhh!- esan zion Olatzek goruntza begira.

Zuhaitzetan hiru ume zeuden lotuta eta beraingana egin zuten salto. Korrika hasi zen Irati baina hor geratu zen Olatz umeak hiltzeko. Lehenengoa, azkar hil zuen karate egiten zuelako, baina bigarrenak atzazkalekin zauri handi bat egin zion eskuan, baina hiltzea lortu zuen. Hirugarrena ez zen Olatzengana joan Iratirengana baizik. Irati geldirik gelditu zen beldurrez akabatuta eta “ni, nini, ni, ni, nini, ni, nini, ni, ni, nini...”abestu zion umeak. Olatz umearengana joan zen baina umea eskapatu egin zen, hor utzi zuen Irati konortea galdu zuelarik.

Irati esnatu egin zen baina ezberdin zegoen...

- Ondo zaude Irati?- galdetu zion Olatzek.
- Irati! Irati!
- Baaaii...- erantzun zion Iratik.
- Goazen itsasoruntz.- esan zion Olatzek

Erreka jarraitzen zuten bitartean ura mugitzen hasi zen eta Olatzen aurrean tritoi bat agertu zen, txilixoka hasi zen tritoia bere hagin zorrotzak erakusten. Olatzek labana atera zuen baina Irati aurreratu egin zen eta bere gainera egin zuen salto lepoan koska eginez. Hor bertan jausi zen tritoia eta Olatz zuhaitz batean eseri zen beldurturik, hori ez zelako bere arreba.

- Lasai, ez dizut minik egingo.- esan zion Iratik tritoia jaten zuen bitartean.

Momentu horretan zozo beltz erraldoi bat agertu zen airean,Olatzek berriz atera zuen labana baina Irati berriz aurreratu egin zen. Zuhaitz batera igo zen eta gero salto batekin hanka harrapatu zion, berutz eraman zuen. Olatzek ez zuen denbora galdu eta labana lepotik sartu zion.

Ibiltzen jarraitu zuten beste munstruorik egongo ote den eta momentu horretan Irati geratu egin zen.

- Ondo zaude Irati?- galdetu zion Olatzek.

Eta espero ez zuen gauza bat gertatu zen. Minutu bateko puzkarra bota zuen Iratik. Hasieran barrezka hasi zen baina gero shock egoeran geratu zen. Bidea jarraitu zuten eta Olatzek zerbait sentitu zuen bizkarrean. Momentu horretan Iratik salto egin zuen Olatzen gainera. Olatz jaten zuen bitartean bere azken hitzak hauek izan ziren.

- Koldo Eleizalde madarikatua!!!

“ni, nini, ni, ni, nini, ni, nini, ni, ni, nini...”